

## **2020KO URRIAREN 29AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA**

**MODUA:** Presentzialki

**TOKIA:** Batzar aretoa

**EGUNA:** Hogeita bederatzi

**HILABETEA:** Urria.

**URTEA:** Bi mila eta hogei.

**HASIERAKO ORDUA:** Arratsaldeko seiak eta erdi

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Bost (5)

**MAHAIBURUA:** Aitor Aldasoro Iturbe (EAJ-PNV)

**BILDUAK:** Leire Artola Ugalde (EAJ-PNV)

Malu Valles Fernandez (EAJ-PNV)

Nerea Manzidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu)

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

**1.- AURREKO AKTA.** Aurreko Aktaren onspena. 2020-10-01.

Aho batez onartu da.

### **2.- HERRITARRAK BATZORDEKO PROPOSAMENAK:**

**A.- USURBE ANTZOKIA ETA ERAKUSKETA ARETOA KUDEATZEA ETA USTIATZEA. KONTRATUA ETENDA EGOTEAGATIK EGIN BEHARREKO ORDAINKETAK. 2018BOCU0001**

Herritarrak batzordeak proposatuta, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

#### “AURREKARIAK

1.- 2020-03-31ko kontratistari (GOIKUS, S.L.), egindako udal jakinarazpen ondorioz, honek 2020-04-03ko idatziaren bidez, kontratuaren etete partziala eskatu zuen, ezinezkoa zelako gauzatzea.

2.- Gobernu Batzordeak, 2020-04-08an erabaki zuen kontratua etetea, 2020-03-14tik.

3.- 2020-05-27. Alkatearen ebazpena, kontratistari eskatuz alarma-egoeran kontratua partzialki etetearen ondoriozko gastuak aurkezteko eta justifikatzeko.

4.- 2020-06-16. Enpresa kontratistaren ordezkariak aurkeztutako idazkia eta egiaztagiriak, kontratuaren zati bat gauzatzearen kostuari eta kalte-galerei buruzkoak.

5.- 2020-06-24. Udalak beste errekerimendu bat egin zuen, zati batean gauzatutakoaren kostua eta kalte-ordainak justifikatzeko.

6.- 2020-07-09. Enpresa kontratistak egindako errekerimenduari emandako erantzuna eta justifikatzaileak aurkeztea.

7.- 2020-07-19. Enpresa kontratistak beste egiaztagiri batzuk aurkeztea.

8.- 2020-07-29. Tercer requerimiento efectuado por el Ayuntamiento para justificar el costo de lo ejecutado parcialmente en relación a la venta, anulación y devolución de entradas y a indemnizaciones referidos a gastos de personal (mes de junio) y costos de mantenimiento de instalaciones (no consumos)

9.- 2020-08-11. Kontrataren erantzuna.

10.- 2020-09-25. Kontratuaren arduradunaren txostena, alarma-egoeran gauzatutako zereginen buruzkoa, eta horregatik ordaindu beharrekoa.

## OINARRI JURIDIKOAK

COVID-19ren ondorioz eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko ezohiko premiazko neurriei buruzko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 34,1 artikulua adierazten du zein kontzepturengatik ordaindu behar den kalte-ordaina, kontratua etenda egon bada. Ondorengoak dira:

*1.º Los gastos salariales que efectivamente hubiera abonado el contratista al personal que figurara adscrito con fecha 14 de marzo de 2020 a la ejecución ordinaria del contrato, durante el período de suspensión.*

*2.º Los gastos por mantenimiento de la garantía definitiva, relativos al período de suspensión del contrato.*

*3.º Los gastos de alquileres o costes de mantenimiento de maquinaria, instalaciones y equipos relativos al periodo de suspensión del contrato, adscritos directamente a la ejecución del contrato, siempre que el contratista acredite que estos medios no pudieron ser empleados para otros fines distintos durante la suspensión del contrato.*

*4.º Los gastos correspondientes a las pólizas de seguro previstas en el pliego y vinculadas al objeto del contrato que hayan sido suscritas por el contratista y estén vigentes en el momento de la suspensión del contrato.*

*En caso de suspensión parcial, los daños y perjuicios a abonar serán los correspondientes conforme al presente apartado de este artículo a la parte del contrato suspendida.*

Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 34,8 artikulua:

*A los efectos de lo señalado en el presente artículo, los gastos salariales a los que en él se hace alusión incluirán los relativos a las cotizaciones a la Seguridad Social que correspondieran*

Kalte-ordaina emateko kontzeptuei dagokienez, kontratistak honako egiaztagiri hauek aurkeztu ditu:

- Bazkide ez den langile baten (garbitzailea) martxoko, apirileko, maiatzeko eta ekaineko nominen ordainketa.

Bazkidea ez den beste langileari buruz (atezaina/akoodatzailea) aurkeztutako nominan ez da ordainsari kopururik aurkezten.

Ez du kontratua partzialki gauzatzeko ardura duten langileen nominarik aurkeztu.

- Behin betiko bermea mantentzeari buruzko gastuak.
- Serkonten mantentze-gastua.
- Moviestar mantentze-gastua.
- Inpronta mantentze-gastua (sarrerren salmenta sist.)
- Innovatek mantentze-gastua (wifi sist.)
- GBP mantentze-gastua (elektrizitatea)
- Erantzukizun zibileko aseguruaren polizari dagokion gastua.

Horren ondorioz

#### ERABAKI DA

Lehenik. Zinea itxita egon den bitartean, GOIKUS, S.L. enpresak emandako zerbitzuengatik, **2.369,19€ zenbatekoa**, **BEZ barne**, ordaintzea.

Horrekin, ontzat ematen da 2020-06-12ko data, jarduera berriro martxan jartzearena, nahiz eta formalki dekretatutako murrizketekin izan.

Bigarren. 2020-03-14tik 2020-06-11ra biak barne, Kontratua partzialki etenda egoteagatik. GOIKUS, S.L.ri kalteordain modura **4.275.77 €**ko kopurua ordaintzea, kontzeptu eta kopuru hauek kontuan izanda:

1.- Pertsonala:

- ✓ Soldatak: 1.529,6 € (martxoa; 266,79 €, apirila: 533,58 €, maiatza: 533,58 € eta ekaina: 195,65 €).

2.- Behin betiko bermeari dagokion gastuak: 50,86 €.

3.- Serkonten mantentze-gastua: 273,39 €.

4.- Moviestar mantentze-gastua: 471,05 €

5.- Inpronta mantentze-gastua (sarrerren salmenta sist.): 1.235,63

6.- Innovatek mantentze-gastua (wifi sist.): 70,77€.

7.- GBP mantentze-gastua (elektrizitatea): 492,23 €

8.- Erantzukizun zibileko aseguruaren polizari dagokion gastua: 152,24 €.

Hirugarren. Enpresa kontratistari erabakiaren berri ematea, eta erabakiaren aurka jar daitezkeen errekursoak jakinaraztea.”

B.- BEASAINGO UDALA ETA EUSKAL FONDOAREN ARTEAN HITZARMENA.  
2020BIBO0012

Herritarrak batzordeak proposatuta, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

#### “AURREKARIAK

- 1) Euskal Fondoaren erakundearen helburua garapen bidean dauden herrialdeekin lankidetzan aritzea da, garapen ekonomiko edo sozialerako edota

sentsibilizaziorako egitasmo eta programak sustatuz, finantzatuz edo kudeatuz.

Hori guztia kontuan hartuta, Udalbatzak, garapenerako lankidetzako ekintzetarako Udalak eman beharreko laguntzen banaketa profesionalagoa egite aldera, Euskal Fondoaren bazkide egitea erabaki zuen 2014ko abenduaren 18an.

- II) Euskal Fondoak, ekitaldi honetan, 2020rako aurkeztutako finantzaketa-proiektuen berri eman dio Udalari.
- III) Gizarte Zerbitzuek proiektu horiek aztertu ondoren, maiatzaren 21eko herritarrek batzordeak horietako bi diruz laguntzea proposatu zuen:
  - "P319K: Ur edangarriaren sistema instalatzea Miramar eta Ceiba komunitatetan. San Francisco Menendez, Ahuachapan. 1. fasea ". Fase horri dagokion aurrekontu osoa, 146.627,57 €koa da.
  - "P315K: Ur edangarriaren sistema eraikitzea. Pambach aldea, Santa Cruz Verapaz, 1. fasea. Fase horri dagokion aurrekontu osoa, 78.201,37 €koa da.
- IV) 2019ko abenduaren 18ko B19/1681 Alkatzaren Ebazpenaren bidez onartutako 2020-2022 diru-laguntzen plan estrategikoak helburu estrategiko gisa gizarte-ekintza sustatzea aurreikusten du (1. diru-laguntza lerroa, 1.5 jarduketa), eta 2020rako Udalaren Aurrekontu Orokorren transferentzia arrunten eranskinean Euskal Fondoaren aldeko diru-laguntza izenduna aurreikusten da.

#### LEGERI APLIKAGARRIA

- Espainiako Konstituzioak 43.3 artikuluan adierazten du botere publikoek herritarren bizi baldintzak hobetzeko ekintzak sustatuko dituztela.
- 38/2003 Legeak, diru laguntzen lege orokorrak, 22.2.a) artikuluan aurreikusten du toki erakundeen aurrekontuetan modu nominatiboan aurreikusitako diru laguntzak zuzenki emateko aukera.
- 38/2003 Legeak, diru laguntzen lege orokorrak, 28. artikuluan xedatzen du hitzarmena izango dela toki erakundeen aurrekontuetan modu nominatiboan aurreikusitako diru laguntzak bideratzeko ohiko tresna.
- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 37. artikulua berezko eskumen gisa aurreikusten du garapenerako lankidetzaren alorreko politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legeak, 14. artikuluan, eskumenak ematen dizkie udalei, egoki irizitako garapenerako lankidetzaren programak edo -ekintzak gauzatzeko.

Horren ondorioz,

ERABAKI DA

Lehenik. Beasaingo Udala eta Euskal Fondoaren artean sinatzeko hitzarmenaren testua onartzea.

- Bazkide izateagatik 2.996,63€ ordainduko zaizkio Euskal Fondoari urteko kuota gisa.
- Proiektuak gauzatzeko, 71.003,37 euroko diru-laguntza emango zaio Euskal Fondoari (P319K proiektuarentzat: 46.627,57€ eta P315K proiektuarentzat: 24.375,80€).

Bigarren. Hitzarmena sinatzeko baimena Alkateari ematea.”

### **3.- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zazpiak hamar gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut